

IKUSPEGI
FEMINISTAK EKOIZPEN
ARTISTIKOETAN ETA
ARTEAREN TEORIETAN

I. EDIZIOA

2012

Egilea

GUERRILLA GIRLS

Titulua

GUERRILLA GIRLS-EN JOKABIDE
DESEGOKIAREN ESKULIBURUA



AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

“Bada printzipio on bat, ordena, argia eta gizona sortu zituena, eta printzipio txar bat, kaosa, iluntasuna eta emakumea sortu zituena”

(Pitagoras, K.a. VI. mendea).

“Neskak mutilak baino lehenago hasten dira hizketan eta oinen gainean ibiltzen, belar txarrak uzta onak baino bizkorrago hazten direlako”

(Martín Lutero, 1533)

“Nire ustez, emakume idazleak, legetariak eta politikariak munstroak dira, bost hanka dituzten txahalen modukoak. Emakume artista erabat irrigarria da, baina emakume kantarien eta dantzarien alde nago”

(Auguste Renoir)

“KOMUNISTA BANDA ESTIMATUA: ARTEAREN MUNDUAN SEKULA IKUSI DUDAN SORGIN KUADRILLA MAKURRENA ZARETE. Ez ezazue pentsa laurogei urte dituzenean karrera egingo duzuenik. Emakume edo neska batek ohean egin dezake artelan onena, larrutan ongi eginez eta, batzuetan, emakume ez ergelak mundura ekarriz. Feminismoa da hies kasuistika (sic) kopuru handienaren arrazoia Ameriketako Estatu Batuetan. Zuei, sorgin feministoi esker bihurtzen dira gay gizon ahulenak. Emakume bat izan daiteke jeinu bat. Gogoratzen zarete Ama Birjinaz, puta sail madarikatu hori? Erantzun iezadazue ausartzen bazarete, sorgin aldra halakoa”

(Italiar arte kritikari baten gutuna G6ei)

“Nire Guerrilla maiteok: Holandako Willem de Kooning Arte Akademiako azken urtean nago. Oso pozik nago existitzen zaretelako, neskak. Aurten ni naiz ikasgelako emakume bakarra neure gorputz biluziarekin artea egingo ez duena graduatzeko. Zinez frustagarria da irakasle gizonezkoak nire obra kritikatzeko ikustea esanez faktore pikaro hori falta zaiola”

(Sinatua, GRRRRR!)

Duela hogeita zortzi urte bururatu zitzaigun New Yorkeko kaleetan bi poster jartzea hiri horretako arte munduan emakume artistek zuten egoera gai hartuta. Ez zen panorama pozgarria. Baina arte politikoa sortzeko ideia berri bat otu zitzaigun: gai bati buelta eman eta aurrez sekula ikusi ez zen modu batean aurkeztea, alegia. Hala jaio ziren **Guerrilla Girls** deituak, emakume artisten talde anonimo bat, jendaurrean gorila-maskarak jantzita agertzen dena eta izengoiti gisa emakume artista hilen izenak erabiltzen dituen.

Ez genekien gure obrak halako kalapita sortuko zuenik... Ez genekien artearen munduko aniztasunari buruzko kontzientzia-krisi handi bat eragingo zuenik, gai hari, izan ere, ez-ikusia egin baitzioten denbora luzez —edota ukatu— museoek, bildumagileek eta kritikariek. Orain, hogeita zortzi urte geroago, begi bistakoa da...; ez dago kultura baten historia kontatzerik, kultura horretako ahots guztiak aintzat hartu gabe.






Ilustración 1. Collage de obras de las Guerrilla Girls, 1985-2014

Ez genekien lehenengo bi poster haien atzetik beste ehunka etorriko zirenik, beste hainbat aktibitatez gainera: kaleko ekintzak, publizitate-panelak, pegatinak, liburuak... eta ez bakarrik arteari buruz, emakumeek eta koloreko pertsonen zineman, politikan eta pop kulturaren munduan zuten egoeraz ere bai. Nork pentsatu behar zuen hogeita zazpi urte geroago, gu, aztoratzaile baztertuok, hainbeste kritikatzeko genituen museoetan egongo ginenik, New Yorkeko *Museum of Modern Art* museoan (*MoMA*), adibidez, edota Londreseko Tate Modern-en, non areto bat baitute gure posterekin erakusketa iraunkorrean. Nork esango zukeen eskala handiko kanpoko proiektuak egingo genituenik hainbat hiritarako, hala nola Rotterdam, Mexiko Hiria, Bilbo, Istanbul, Atenas edo Shanghairako? Gainera, ideiak trukatzeko jardunaldietan hartu dugu parte Greenpeace erakundearekin, Amnistia Internazionalaren “*Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez*” kanpainan, eta proiektu berriak sortzen ari gara politikaren eta emakumeen gai globalen inguruan.

Guerrilla Girlsok lan hori egiteko suertea izan dugu, eta esker ona baizik ez dugu mundu guztiko zortzitik laurogei urtera bitarteko milaka pertsonarentzat, hainbat e-mail bidaltzen baitigute urtero esanez haien inspirazio-iturri garelako nork bere estiloko aktibismo zoro eta sortzaile hori gauzatzeko orduan.


1985ean ekin genion bide honi, gauaren erdian, ezkutuka, posterrak jartzera irten ginenean New York osoan. Kartel haietan emakume artistek hiri hartako artearen munduan zuten estatusaren berri ematen zen. (Bide batez esanda, postontzi batean poster bat itsastea lege-hauste larria da Estatu Batuetan)





1. Irudia. Guerrilla Girlsen posterra Estatu Batuetako postontzi batean, 1988 aldera

Haserre geundelako egin genuen hura, baina kartel haiek mundu guztiaren arreta erakarri zuten, eta gai haietaz hitz egiten hasteko bide eman zuten. Horrek erakusten du zer gaizki zeuden gauzak. Ez ginen kezkatzen honetatik % 50 ez zegoelako edo beste horretatik % 30. Ez, kezkatzen ginen % 0 zegoelako, edo % 10, asko jota.



2. Irudia. Guerrilla Girlsen posterra: Zenbat emakumek eduki zuten erakusketa indibidual bat... iazko urtean, 1985.




Berehala zabaldu zen Guerrilla Girls taldekook kexati batzuk besterik ez ginela..., negatibo hutsak! Kritika hori geure eginik, beste poster bat egitea erabaki genuen emakume artistei beren egoerari buruz positiboagoak izaten laguntzeko: Emakume eta artista izatearen abantailak.



3. Irudia. Guerrilla Girlsen posterra: Emakume eta artista izatearen abantailak, 1989

Poster hori hainbat hizkuntzataraz itzuli da eta ia astero jasotzen ditugu oso lanbide anitzetako —albaitaritzaz, musika, komikien marrazketa, fisika, edota tanatologia— emakumeen gutunak esanez gure poster hori beren bizitzaren historia ere badela.

Handik urte batzuetara, Manhattanen publizitate-panel bat jartzeko gonbita egin ziguten, gure ahots zoro hau publiko zabalago batera hedatzen saiatzeko. Hala, *Metropolitan Museumera (Met)* joan ginen guk maitekiro “*Saltxitxen zenbaketa*” deitu geniona egitera. Gizonezko eta emakumezkoen gorputz biluziak zenbatu genituen. Arte klasikoaren atala bisitatu genuenean, irudi biluzi gehienak gizonezkoenak ziren. Kristautasunaren lehen garaietako ataletan, berriz, ez zen haragi asko ikusten. Bepizkundeko margolanetan eta obra barrokoetan ikusi genuen irudi biluzi bakarria Jesus Haurtoarena izan zen! XIX. eta XX. mendeetara, aro modernora, iritsi behar izan genuen —sexuak erlijioa ordeztu zuen orduan Europako artisten kezka nagusi gisa— beste estatistika hau aurkitzeko.



4. Irudia. Guerrilla Girlsen posterra: Metropolitan Museumen sartzeko biluzik egon behar dute emakumeek?, 1989

Gure lanak eragin handia izan du artearen munduan, baina zaila gertatzen da ohitura zaharrak bertan behera uztea eta museo batzuetan oraindik atzeratuta daude. Iazko udan itzuli ginen Met-era, hobekuntzaren bat egin ote zuten ikustera; seguru geunden hala izango zela, baina hona zer aurkitu genuen: Emakume artista gutxiago, baina gizon biluzi gehiago. Aurrerapena da hori?

Joan zen udan antzeko zenbaketa bat egin genuen *Boston Museum of Fine Arts* delakoan, saltxitxen zenbaketan zer neurri ematen zuten ikusteko. Gero, Bostongo arte eskola batek publizitate-kamioneta bat alokatu zuen eta emaitzak aldarrikatu zituen Boston guztian eta



museoaren aurrean. Museoak azkar asko txiokatu zuen bere bilduma garaikidean ehuneko 30 baino gehiago direla emakumeak eta hobetzen saiatzen ari direla. Ikusiko dugu hitza betetzen duten.

Laurogeita hamarreko hamarraldiaren erdi aldera, artearen munduko modako hitza “kultura-aniztasuna” zen. Erakunde artistikoak eguneratzen saiatzen ari ziren emakumeei eta koloreko artistei zegokienez. Baina ohartu ginen emakumeen eta koloreko artisten artean zegoen aniztasun handia erakutsi ordez, museo gehienak artista talde murriz bat behin eta berriro erakusten ari zirela. Balio sinbolikoaren gaineko kanpaina bat egitea erabaki genuen, honako galdera honekin: Balio sinbolikoa sustatzea, bazterketa arazoaren soluzioa ala jarraipena da? Artearen munduan balio sinboliko bat zarela adierazten duten hamar seinale nagusiak. Kasu hauek guztiak gure taldeko kideei gertatuak dira.

TOP TEN SIGNS THAT YOU'RE AN ART WORLD TOKEN:

- 1.** A curator who never gave you the time of day before calls you right after a Guerrilla Girls demonstration.
- 2.** People are always telling you their interracial and gay sexual fantasies.
- 3.** Whenever you open your mouth, it's assumed that you speak for "your people," not just yourself.
- 4.** No collector ever buys more than one of your pieces.
- 5.** You're a finalist for a non-tenure-track teaching position at every art school on the east coast.
- 6.** Your last show got a lot of publicity, but no cash.
- 7.** A museum that won't show your work gives you a prominent place in its lecture series.
- 8.** Everyone knows your race, gender and sexual preference even when they don't know your work.
- 9.** At openings and parties, the only other people of color are serving drinks.
- 10.** Your busiest months are February (Black History Month,) March (Women's History,) April (Asian-American Awareness,) June (Stonewall Anniversary) and September (Latino Heritage).

GUERRILLA GIRLS CONSCIENCE OF THE ARTWORLD
A PUBLIC SERVICE MESSAGE FROM
5 3 2 L O G U A R D I A P L A C E , # 2 3 7 • N Y , N Y 1 0 0 1 2

5. Irudia. Guerrilla Girlsen posterra, Artearen munduan balio sinboliko bat zarela adierazten duten hamar seinale nagusiak, 1995

Duela gutxi, Guerrilla Girls taldekook inoiz baino lanpetuago egon gara... eta dilema bat izan dugu aurrez aurre: zer egin zeure bizi osoan kontra egin diozun sistema batek barnean hartzen zaituenean? 2005ean, instalazio handi bat egiteko eskatu ziguten *Veneziako Bienalean*. Azken bi urteotan, gure obra mundu guzliko hainbat museo garrantzitsutan erakutsi da. Zer egin behar du, orduan, aktibista batek? Buelta asko eman dizkiogu gaiari, baina, oraingoz, erakusketetan parte hartzea eta museoetan agertzea erabaki dugu, gure mezua ahalik eta jende gehienari eramateko modua izateko... eta... bestalde, zirrargarria baita erakunde artistikoak etxe barrutik kritikatzeari.

Venezian 1,88 metro altuko posterren instalazio bat egin genuen; horixe zen lehenbizi ikusten zena, Arsenaleko areto nagusian sartzean.

Lehenik, Bienala bera hartu genuen hizpide, eta 110 urteko diskriminazioa dokumentatu genuen. Baina lehenengo bienal feminista ere deklaratu genuen. Zergatik? Lehenengo aldiz zuzendari emakumezkoak zituelako eta —EZUSTEKOA— inoiz baino emakume artista gehiago.






6. Irudia. Guerrilla Girlsen proiektua Veneziako Bienalerako, Benvenuti Alla Biennale Femminista!, 2005

Gero, Veneziako museoez ere arduratu ginen. Hala jakin genuen Veneziako museo historiko guztiek, bat kenduta, emakumeen obrak dituztela beren bildumetan, baina ia lan horiek guztiak sotoan gordetzen direla, eta ez hormetan. Gero, Marcello Mastroianni Anita Ekberg-en gainean zangalatraba agertzen den irudi ikoniko geure egin genuen. Felliniren “La Dolce Vita” film ospetsuko irudi bat da. Eta jendeari eskatu genion joan zitezela Veneziako museoetara eta esan ziezaietela jartzeko emakume gehiago goian!





7. Irudia. Guerrilla Girlsen proiektua Veneziako Bienalerako, Non daude Veneziako emakume artistak?, 2005

Washington Post-ek orrialde oso bat eskaini zigunean feminismoari eta arteari eskaintako atal berezi baten barruan, geure egunkari sentsazionalista propioa diseinatu genuen, **EZ DAGO ONGI! Guerrilla Girlsen Eskandaluen Paskina**, egia beldurgarri bat argitara ateratzeko: emakume eta koloreko artista oso-oso gutxiren obra dago Estatu Batuetako arte museo nazionaletan. **“IZUA ZABALDEGI NAZIONALEAN! Milaka emakume daude sotoetan giltzapetuta, Washingtongo museoetan!”**. Washington Postek Brangelinaren argazki bat erostea ere lortu genuen, halakorik gabe ez baitago osatuta egunkari sentsazionalista bat. (Titularrak aldarrikatzen zuen: “Famatuek diote: 'Museoek politika berriak behar dituzte!’.”) Gure estatistika guztiak museoetatik edo haien webguneetatik lortu genituen, baina Postetik deitu zietenean datuak berresteko, museoak zeharo zoratu ziren! Galeria Nazionaleak koloreko artista baten eskultura ipini zuen korrika eta presaka, eta Hirshhorn museoak, zeuzkanik ere ez zekien emakumeen eta koloreko artisten lanak aurkitu zituen bat-batean!



Duela aste batzuk Chicagon ipini genuen gure azkeneko posterrak horixe eskatzen dio Chicagoko Art Institute erakundeari. **“Guerrilla Girlsek museoei: generoa berriro izendatzeko garaia da”**. Oraintxe, *Chicagoko Art Institutetako* galeria modernoetan artisten ehuneko 90 gizonetzkoak dira; galeria garaikideetan, ehuneko 82 dira gizonetzkoak, eta emakume afro-amerikar baten obra bakar bat dago. Orain, posterrean egin eta gero, gertu gaude benetan egiteko.

Beha dezagun orain Estatu Batuetako kulturaren beste eremu batera, non gauzak artearen munduan baino ere okerrago dauden: Hollywood.

Zinematografiaren industriak ausarta, aurrerakoia eta aurreratua den itxurak egiten ditu, baina alor horretako gidoilari, zuzendari eta editoreei begiratu bat ematen badiezu, oso emakume eta koloreko pertsona gutxi aurkituko duzu, tamalez. Horrela bada, hainbat urtez, publizitate-panelak alokatu ditugu Hollywooden, Oscarren zeremonia egiten den tokitik etxalde gutxi batzuk harago. Lehenengo aldiz egin genuenean, 2002an, errealismo apur bat txertatu nahi izan genuen Akademiaren Sarietan. Urrezko estatuatxoa birdiseinatu genuen hura etxera eramaten duten gizonen antz handiagoa izan zezan.



10. Irudia. Guerrilla Girlsen publizitate-panela, Oscar anatomikoki zuzena, 2002

“Oscar anatomikoki zuzena: Zuria da eta gizona, hura irabazten duten tipoak bezala”. Datuekin sostengatu behar izan genuen eskandaluzko adierazpen hori: Emakume batek ez zuen inoiz irabazi Zuzendari Onenaren saria. Gidoiei eman zaizkien sarien % 94 gizonetzkoek irabazi dituzte. Antzezpen sarien % 3 soilik irabazi dituzte koloreko pertsonak. Urte hartan Denzel Washingtonek eta Halle Berryk irabazi zituzten interpretazio Oscarrak eta seguru gaude... gure publizitate-panelari esker izan zela. Urte batzuk geroago, Mo’Nique lehenbizi eta Octavia Spencer gero, gidoi onenaren saria irabazi zuten bosgarren eta seigarren emakume afro-amerikarrak izan ziren, eta Kathryn Bigelow zuzendari onenaren Oscarra irabazi zuen lehenengo emakumea... eta, jakina, horretan ere izan genuen meritua.


Mintza gaitzen orain politika soilaz. Poster asko egin ditugu gai politiko eta sozialei buruz, bereziki Bushen agintaldiaren garaian, mundu guztiak galdetzen zuenean, “zer ari dira egiten Guerrilla Girls taldekoak gure herrialdea terrorismoaren kontra egiten ari den ahaleginari laguntzeko?”. Ba, begira; arma berri bat sortu dugu gure iritzian gerra-gatazka moderno guztiak alda litzakeena.





11. Irudia. Guerrilla Girlsen publizitate-panela, Londresko Meltdown jaialdirako Estrogeno-bonba, 2012

“Estrogeno-bonba: Bota ezazu Washingtonen eta biztanleriaren % Iek, Estatu Batuetako gobernua kontrolatu nahi duten super-aberats horiek, beren arma hilgarriak utziko dituzte, elkar besarkatuko dute, beren errua izan zela esango dute eta lanean hasiko dira, azkenean, giza eskubideen, hezkuntzaren eta osasunaren alde eta pobreziaaren aurka. Ba duzu estrogeno-pilularik soberan? Bidaliezazkiezu Karl Rove-ri, Koch anaiei, Foster Freiss-i, Sheldon Adelson-i eta zuk nahi duzun enpresako lehendakariari”.



12. Irudia. Guerrilla Girlsen kale-proiektua Montrealarako, Ordena publikoa aztoratzen, 2009

Duela gutxi amaitu dugu emakumeen aurkako gorrotoari eta indarkeriari buruzko poster bat. Montrealgo kaleetan zabaldu dugu Kanadaren historiako erailketa-sarraski bortitzenaren 20. urteurrena zela eta. Marc Lepine izeneko gizon armatu batek adierazi zuen “feminismoaren kontra ari zela borrokan” eta Eskola Politeknikoan ingeniari zena ikasten ari ziren hogeita hiru neska ikasle hil zituen. Gure kartela graffitiz




betetako horma bat da, non mendez mende gorrotora bultzatu duten testu sexistak biltzen diren, Platonengandik hasi eta Konfuziorengana heldu arte; hona zer esan zuen txinatar filosofoak: “Ehun emakumek ez dute barrabil batek adina balio”; Pat Robertonek, berriz, adierazi zuen: “Feminismoa familiaren kontrako mugimendu sozialista bat da, senarrak abandonatzera, seme-alabak hiltzera, kapitalismoa suntsitzera eta lesbaiar bihurtzera animatzen ditu emakumeak”. Zarrada eragin zigun ohartzeak ongi ikusita dagoela beste talde batzuei buruz ametituko ez lirakekeen gauzak emakumeei buruz esatea.



13.Irudia. Guerrilla Girlsen liburuen collagea

Izugarri gustatzen zaigu kartelak eta publizitate-panelak egitea, baina, denborarekin, gehixeago sakondu eta bazterkeriaren azpiko zergatiak esploratu nahi izan genituen. Lehenbizi, artearen historiari buruzko liburu bat idatzi genuen, “*The Guerrilla Girls' Bedside Companion to the History of Western Art*”, ohiko testuliburuaren ordezkari izan zitekeena eta mendebaldeko artearen aldi guztietako emakume artisten bizia aztertzen zuena.





14. Irudia. Guerrilla Girlsen arte-museoetako jardueren liburua, 2004-2012

Oso gogoko ditugu artea eta artistak, baina onar dezagun: artearen mundua eta artearen merkatua kaka zahar bat dira. Biak sasi-intelektualez, pertsona esnobez, informazio pribilegiatua erabiltzen duen jendez eta iruzurgilez josita daude. Artearen merkatua ia-ia arautu gabe dago. Izatez, munduko laugarren merkatu beltz handien jotzen dute, droga, arma eta diamanteen merkatu beltzen ondoren. Ehuneko laren ehuneko laren joko-eremua da.... prezioak manipulatzeko dituzte eta museoek bildumetan zer jaso behar luketen esaten digute gainontzeko. Ondorengo iruzkin hauek, batik bat, gure “Guerrilla Girls’ Art Museum Activity Book” berri eta eguneratutik hartuta daude. Museoek txikienei artea estimatzen irakasteko saltzen dituzten liburu horien parodia bat da gurea. Gure liburuak bakarrik animatzen du mundu guztia museoak kritikatzera.

Museoen historia labur bat. Jende aberatsak beti gauza mordo bat edukitzen zuelako hasi zen guztia. Duela mende batzuk, jauretzeetan eta elizetan lekurik gabe geratu ziren eta espazio berriak behar izan zituzten guztia edukitzeko. Eta horra! Arte museoak jarri zituzten martxan. Europan, gobernuaren esku geratu ziren museoak eta burokratek eta funtzionarioek kudeatzen dituzte. Estatu Batuetan, berriz, museo gehienak jende ikaragarri aberatsak finantzatu eta gainbegiratu zituen, eta hala jarraitzen dute.

Europako eta Ipar Amerikako museoetan dagoen artearen parte handi bat, hasieran, lapurtutakoa zen, batzuetan, herrialdeei (*British Museumeko* friso greziarrak); beste batzuetan, herri indigenei (Ameriketako Estatu Batuetako museoetako indiarren tresnak), edota holokaustoaren biktimei. Orain, herrialde batzuk eta zenbait herri indigena eta familia beren gauzak itzul diezazkieten ahalegintzen ari dira. Baina munduko museoerik aberatsenak —*Getty*— duela gutxi kontratatu duen presidentek uste du herrialde modernoek ez dutela inolako eskubiderik beren iraganeko gauzak eskatzeko, ezta Gettyko kontserbatzaile bat kontrabandoa egiteagatik epaitua izan ostean ere! Aurkitzen duenak berarentzat gordetzen du eta galdu duenak egin dezala negar!



Museo gutxi bildu zuten beren garaiko artea harik eta 1929an *Arte Modernoko Museoa* sortu zen arte. Gaur egun arte garaikideko museo asko daude eta abantaila handia dute museo historikoekin alderatuta: erakusketak egiten dituzten artistak bizirik daude eta festa hobeak eskaintzen dituzte!

Museoetako zuzendariak soldata kaxkarrak izaten zituzten, baina azken hamar urteotan gora eta gora egin dute. Esate baterako *New Yorkeko MoMA*ko zuzendariak 2,25 milioi dolar irabazi zituen 2008an! Salbuespen pare bat kenduta, museoetan zuzendari dauden emakumezko bakanei askoz gutxiago ordaintzen zaie gizonezkoen baino.

Estatu Batuetako museoak negozio-gizon aberatsek osatutako administrazio-kontseiluek zuzentzen eta gainbegiratzen dituzte; aipatutako negozio-gizonen dirua eta artelanak ematen dizkiote museoari eta, hala, zerga-kenkari izugarriak lortzen dituzte. Museoetako buletinak aipatutako "administratzaile" horien argazkiak eta biografia inbidiagarriak beteta egon ohi dira; tira, kartzelara sartzen dituzten arte prezioak adostegatik edo beren enpresak hondamendira eramateagatik. Administratzaileak erosketa-batzordeetako kide izaten dira; organo horiek laguntzen diote museoeko kontserbatzaileari bildumarako zer arte erosi erabakitzen. Izatez, kontserbatzaileek ez dute horretarako laguntzarik behar, baina administratzaileen dirua behar izaten dute arte hori erosteko. Ez dago oso azitia izan beharrik oharretarako ustelkeriarako bide ematen duen sistema dela, izan ere, bildumagileek susta dezakete eurek jabetzan dauzkaten artisten obrak erostea eta horrek, bide batez, balioa igotzen die haien bilduma pribatuei.

Administrazio-kontseiluko kide batek behar adina diru ematen badu, museoari edo haren parte bati bere izena jarriko diote. Pentsatzen ari gara Whitney museoan Guerrilla Girlsen Komuna ipintzea.

Duela gutxi arte, ia museo guztiak gizonezko zurien artez beteta zeuden, eta, balio sinboliko gisa, emakumeren baten edo koloreko artistaren bat edo biren lanak. Guerrilla Girlsen lanari eta beste aztoratzaile nekaezin askoren eta hainbat emakume akademiko ilustraturen ahaleginari esker, gauzak zertxobait hobetu dira. Orain, bederatzi edo hamar emakumeren edo koloreko artistaren obrak erakusten dira, balio sinboliko gisa.



EGIN DEZAGUN AZTERKETA BAT!

GALDERA - Ondorengo moda-etxeetako zeinek erosi zuen bere diseinu propioen erakusketa bat museo handi batean?

A. Dior / B. Cartier / C. Armani / D. Alexander McQueen

ERANTZUNA - Guztiek! Alexander McQueen Inc. izan zen babesle nagusietako bat Met museoko Savage Beauty: Alexander McQueen (2011) erakusketa arrakastatsuen kasuan. Bere lanaren erakusketa bat finantzatzen duen enpresa baten etika zalantzan jarri zenean, McQueenen erakusketaren komisarioak esan zuen argudio hori aspergarria gertatzen dela, praktika horrek tradizio luzea omen duelako! Met museoak Dior etxearen erakusketa bat antolatu zuen, Diorrek finantzatuta (1996), eta Cartierren beste bat, Cartierrek finantzatuta (1997). Guggenheimek 5 milioi dólar onartu zizkion Armaniri eta, urte berean, Armaniren diseinuen erakusketa handi bat antolatu zuen.

GALDERA - Zenbat ordaindu behar dute arte bildumagileek beren bilduma pribatuak museo batean erakuts daitezen?

A. Ezer ez / B. Asko

ERANTZUNA - Ezer ez. Museoak irrikaz egoten dira pertsona batzuen arte-bildumen erakusketak egiteko, obra haiek museoarentzat geratuko diren itzaropena izaten baitute.

Asko, baina merezi du. 1999an, Brooklyn Museum-ek Charles Saatchi-ren bilduman oinarrituriko arte britainiar garaikideari buruzko erakusketa bat ireki zuen. Saatchik ehunka mila dolar ordaindu zituen isilpean ekitaldia finantzatzeko. Erakusketa amaitu eta gutxira, Saatchik erakusketan egondako artisten obrak atera zituen enkantean eta prezio errekorrak lortu zituen.

GALDERA - Irabazi daiteke dirurik museo batetik, haren administrazio-kontseiluan egonda?

ERANTZUNA - 11 milioi dolarrek BAIETZ diote! Horixe ordaindu zioten Guiseppe Panza di Biumo kondeari 1990ean, bere bildumaren zati bat Los Angeleseko Arte Garaikideko Museoari saltzeagatik, bera administrazio-kontseiluan zegoela. Bere bildumako beste obra batzuk ere saldu zizkion urte hartan Guggenheim museoari... 30 milioi dolarren truke.



ETA ORAIN ZENBAIT GERTAERA HASERREGARRI ETA BITXI MUSEOTAKO BI ADMINISTRATZAILERI BURUZ

Kartzelara joan zen bat eta libratu zen beste bat.


1. gertaera bitxia. Laurogeiko hamarraldiaren azken aldera, A. Alfred Taubman —merkataritza-guneak eraikitzen diru asko irabazitako gizona— Whitney Museum of American Art museoko administrazio-kontseiluan zegoen eta, era berean, Sotheby's enkante-etxeko akziodun handiena zen. Beraz, bazekien noren lanak erakutsiko ziren Whitneyen eta zer artistari erosiko zitzaien obra, eta, jakina, informazio hori oso erabilgarria zen haren enkante-etxeari begira. Orduan ez zuen inork zalantzan jarri jokabide horren etika, baina, 2002an, federalek kartzelara bidali zuten Christie's-ekin —enkante-etxe lehiakidea— prezioak adosteagatik.

2. gertaera bitxia. Ralph Esmerian, arte bildumagile, bitxigile eta American Folk Art Museum-eko lehendakariari sei urteko kartzelazigorra ezarri zioten iruzurra, salmentak faltsutzea eta bidegabeko eralgitzea egotzita. Hona zer egin zuen: bitxi oso baliotsu bat erabili zuen abal gisa mailegu bat lortzeko, gero saldu egin zuen eta Suitzako banku batean gorde zuen dirua. Museoko lehendakaria zenez, erakundea ia kiebrara eramango zuen berrikuntza oso garesti bat egitea onarrarazi zuen, eta gero “hanka egin zuen barkutik”, finantza zaborreria hura guztia argitara atera zenean. Hala ere, MoMAri ezin hobeto etorri zitzaion jokaldi hura, huskeria baten truke lortu baitzuen eraikin berria!

3. gertaera bitxia. Gary Winnick izan zen Global Crossing enpresa sortu zuen gizona; gero, akzioen prezioa manipulatu zuen, bere partizipazioak 734 milioi dolarretan saldu zituen, eta enpresa kiebrara eramanean zuen, enplegatuen pentsio-planak bertan behera geratzen zirela. Orain MoMAko administrazio-kontseiluan dago. Ez diezaiotela utzi Finantza Batzordera hurbiltzen!

Museo guztiak lehia bizian dabilta eraikin harrigarriena nork sortuko. Adi, arkitekto ospetsuok: hona hemen kontzeptu bat museo batean izango duzuen zuen hurrengo lanerako. Egin behar duzuen gauza bakarra puntuak lotzea da museo perfektuaren planoa sortzeko.





15. Irudia. Guerrilla Girlsen arte museoetako jardueren liburuaren xehetasuna, 2004-2012

GALDERA - Zer artistak eduki zituen atzera begirako bi erakusketa museo handi batean, bere arte-merkataria museo horretako kontserbatzaile nagusiaren anaia zela?

ERANTZUNA - Frank Stella-k! Stellak atzera begirako erakusketa bat eduki zuen MoMA 1970ean, eta beste bat 1987an. Eta horra zer diren gauzak, Stellaren Europako arte-merkataria Lawrence Rubin zen, Bill Rubin MoMAko kontserbatzailearen anaia. Bill Rubin 1988an joan zen MoMATik... eta ordutik Stellak ez du beste atzera begirakorik eduki.

GALDERA - Ondorengo zer gairi buruzko erakusketa batean parte hartzeko ez dago kasik behar bezain ona den emakume artistarik?

A. Gerra / B. Natura hila

ERANTZUNA - Natura hila. 1997an, Margin Rowell MoMAko kontserbatzaileak erakusketa bat antolatu zuen ondorengo izenburuarekin "Objects of Desire: The Modern Still Life" [Desira-objektuak: natura hil modernoa]. Nahiz eta mendeetan zehar, natura hila izan den emakumei irekita egon den arteko kategoria urrietako bat, Rowellek hiru emakume zuri eta koloreko emakume bat baizik ez zituen sartu bere erakusketako 71 artisten artean. Ehunka postal bidali genion ekitaldiaren izenburua alda zezala iradokiz: "MoMAren desira-objektuak gizona zuriak dira oraindik".

GALDERA - MoMAk, inbertsio-funtsen kudeatzaileen dohaintzak bereganatzeko, koktel BAT eskaintzen du egunean?

ERANTZUNA - Baliteke, baina BAT da, orobat, MoMAk azkeneko bost urteotan artista afro-amerikarrei eskaini dien atzera begirako erakusketen kopurua. Eta gizon batena izan zen. ZERO izan da emakume artista afro-amerikarren erakusketa kopurua.






16. Irudia. Guerrilla Girlsen arte museoetako jardueren liburuaren xehetasuna, 2004-2012

Beti gabiltza museoak hobetzeko ahaleginetan, eta museo bateko dendara goazenean, ezin ditugu burutik kendu han ikustea gustatuko litzaigukeen produktuak. Hona horietako batzuk:

- Beisboleko kapelu bat, honako hau dioena: “Dibertsitatea Ipar Amerikako museoetan: 50 urte beisbolaren atzetik”.
- Aterki bat idazkun honekin: “The Whitney Museum of Art. Gure administrazio-kontseiluko oraingo kide bakar bat ere ez dago kartzelan”.
- Eta “Egun bateko arte bildumagilearen kita”, Met-eko eta MoMAko administratzaile Leon Black-en bizitzan oinarritua. Museo baten administrazio-kontseiluko kide aberats bat bezala jarduteko behar den guztia duena, honako hauek barne:
 - CD bat Elton Johnen abestiekin eta lentejuelak dituen festetarako kapela bat. Egizu zure urtebetetze-festa super garestia Hamptonsetan ospatzen duzun itxura, miloi bat dolar kostatu zaizun Sir Eltonen zuzeneko emanaldi bat barne... Leon Blackek 2011ko abuztuaren 13an eginiko parranda bezalakoxea.
 - Benetakoa ematen duen enkanterako pala. Harropuztu zaitetz Sotheby's-era joan eta 47 milioi dolar ordainduta Rafaelen 25x20 cm-ko marrazki bategatik. Gero, emaitza Met museoari dohaintzan, zerga-kenkari itzel bat lortzeko.
 - Atzeraldi ekonomikoen kontra gotortutako txerri formako itsulapiko xarmagarri bat. Ezkutatu itzazu “arazoetan” den zorra erositara irabazi dituzun milaka milioiak. Garai txarrak guztientzat, zuretzat izan ezik.
 - Jostailuzko limusina luze-luzea txoferrarekin. Egizu jolas kartzelan dauden, edo egon diren, zure garai bateko lankideak bisitatzen dituzula..., adibidez, Michael Milken. Garrantzitsua da suerte gutxiago izan dutenekin keinu abegitsuak izatea.



Duela bi urte, Guerrilla Girls taldekook urte akademikoari hasiera ematen zion gure lehen irekiera-hitzaldia eman genuen *Chicagoko School of the Art Institute* izenekoan, Millennium Park-en bildutako lau mila pertsona alaitsuren aurrean. Joan zen abenduan, hitzaldi horren bertsio bat aurkeztu genion Espainiako Kulturako ministroari eta Espainiako eta Europako museoetako kontserbatzaile talde bati. Eta gaurko solasaldi honi amaiera emateko, gure manifestutik ateratako diatriba batzuen berri emango dizuet...



17. Irudia. *Guerrilla Girlsen jokabide desegokiaren eskuliburuaren irudia, Urte akademikoaren irekiera-hitzaldia Chicagoko School Of The Art Institutuen, 2010*

“Guerrilla Girlsen jokabide desegokiaren eskuliburua: Zer egin behar den, ia denbora guztian, bizi garen mundu honetan”. Artistei, artearen eta kulturaren munduan lan egiten duten pertsoneri eta indarrean dagoen sistema aldatu nahi duen edonori zuzendutako gida bat da.

- **IZAN ZAITEZ GALTZAILE.** Artearen munduak ez du Olinpiada bat izan behar, non gutxi batzuek irabazten duten eta gainerako guztiak ahazten diren. Artearen merkatuaren —eta izen sonatuen arteko kultura hiper-lehiakorren— eraginez, badirudi izarrak ez diren guztiak porrot egin dutela. Baina bada beste mundu bat ego basatien erresumatik kanpo, elkarlanaren eta lankidetzaren mundua, alegia. Horrekin egiten dugu guk bat, eta zu ere batu zaitezke! Funtsezkoa da elkarren artean konexioa egotea eta guztiok batera zalaparta egitea.
- **EGIN ITZAZU EROKERIAK.** Zerbait seinalatu eta “hori gaizki dago” esaten duen artea edo aktibismo politikoa konbentituei predikatzen ari da. Horren ordez, jendearen pentsamoldea aldatzen saiatu behar duzu. Eta egizu ahaztuko ez den modu batean. Hona ikasi dugun trikimailu bat: Umoreak “radarraren azpitik hegan egiten laguntzen dizu”. Zurekin ados ez dagoen jendeak gai bati buruz zurekin barre egitea lortzen baduzu, sartu zara jada haren garunean. Eta behin barruan zaudela, askoz aukera gehiago dituzu hura konbentitzeko.
- **IZAN ZAITEZ IZENGABE.** Batzuetan jendaurrean hitz egin beharra dago, baina beste batzuetan, askoz hobe da era anonimoan hitz egitea. Horrek baditu desabantailak, adibidez, zure bizi osoan inolako aitortzarik gabe lan egitea, baina abantailak ere baditu. Esate baterako, anonimotasunari esker, interesatzen zaizkigun gaietan jartzen da arreta eta ez gure nortasunean. Nor izango garen misterioak arreta erakartzen du sustatzen ditugun gaien inguruan. Gainera... ez duzu imajinatzen ere zer esatera iritsi zaitezkeen gorila-maskara bat jantzita duzunean!
- **EGIZU LAN “KANPOTIK”.** Sistemaren barruan lan egiten baduzu ere, porta zaitez kanpoan bazeunde bezala. Bila ezazu azpian dagoena, azpi-testua, oharkabean pasatzen dena eta zinez bidegabea dena. Eta sala ezazu. Traba ezazu zeure kultura. Berregin zure erakundea.
- **EGIZU GAUZA BAT BAKARRIK.** Ondo badoa, egin beste bat. Ez geratu blokeatuta beti ongi ateratzen ez bazaizu. Jarraitu azpia zulatzen. Hitz ematen dizugu, pixkanaka, zure ahaleginak emaitza eraginkorrak izango dituela.



Gaur ikusi duzun bezala, pankarta eta publizitate-panel eskergak egin ditugu mundu guztian. Baina beste gauza xume asko eta asko egin ditugu, zuk ere egin ditzakezunak: Sar itzazu esku-orriak museoetako dendetako liburuetan, itsatsi mezuak komunetan. Ideia gehiago nahi? Ipin itzazu mezu politikoak dituzten etiketak dendetako produktuetan, ezarri kaleko artea lan egiten duzun lekuaren parean, jar itzazu pegatinak modako aldizkarien azaletan... Bost minututan, hemen dagoen jendeari beste milioi bat ideia bururatu lekizkioke.

- **ARTISTAK: EZ EZAZUE EGIN ARTE GARESTIA BAKARRIK**, arte bildumagile aberatsek soilik eros dezaketena. Museoetako kontserbatzaileak: Ez ezazue zuen administrazio-kontseiluko kideek dohaintzan emandako arte garestia soilik erakutsi! Egon dadila arte merkeagoa, edozeinek eros dezakeena... liburuak eta filmak bezala..., edo gure posterrak bezala.
- **IZAN ZAITEZ ZURRUNA MUSEOEKIN**. Ez da batere etikoa artean diru asko inbertitzen duten arte-bildumagile aberatsak museoen administrazio-kontseiluetan egotea, beren inbertsio pertsonalak baliozkotzen laguntzen duten erakundeak gainbegiratzen.

Gure historia idatzi eta gordetzeko modu nazkagarria da! Eska ezazu museoak arau etikoen arabera kudeatzea. Ez itzazu ametitu interes-gatazkak edota informazio pribilegiatuaren zirkulazioa! Ez dugu Gehien Kostatzen Den Artea moldearekin sorturiko bilduma gehiago nahi. Konbentzi itzazu arte bildumagileak haien bildumek balio eskasagoa dutela emakumeen eta koloreko pertsonen obrak ez badituzte. Ez utzi museoei gizon zuriaren artearen eta boterearen bertsioa betierekotzen, obra gutxi batzuk balio sinboliko gisa gehituta. Ziurta ezazu gogokoen duzun museoak bere sarea hedatzen duela eta gure kulturaren historia osoari buruzko bilduma egiten duela.

Azkenik, museo batean edo ikasgela batean lan egiten baduzu, ez ezazu erakunde ustelduek sortutako artearen historia irakatsi. Idatz ezazu zeurea!

- **KEXA ZAITEZ, KEXA ZAITEZ, KEXA ZAITEZ**. Baina sormena erabilia. Kexa zaitetz profesionalki. Ez ezazu jakintzat eman jendeak museoetan zer falta den dakienik; gogora ezazu zenbat bilduma moderno eta garaikide dagoen oraindik non emakumeen obrak % 15 baino gutxiago diren. Pankartak eta publizitate-panelak jartzen ditugunean, arte bildumetan —edo industria zinematografikoan— zer emakume edo koloreko pertsona gutxi sartzen diren salatzeke, jendeak esaten digu atsekabetuta dagoela gauza horien berri lehenago jakin ez duelako.





18. Irudia. Guerrilla Girlsen jokabide desegokiaren eskuliburuaren irudia, Urte akademikoaren irekiera-hitzaldia Chicagoko School Of The Art Institutuen, 2010

- **ERABIL EZAZU “FEMINISMO” HITZA.** Zentzugabea iruditzen zaigu feminismoaren printzipioetan sinesten duten hainbat pertsonak beren buruari feminista ez deitzea. Feminismoak ez du merezi duen errespetua jasotzen. Mundua aldatu du, gizakion pentsamendua irauli du eta emakume askori haien birramonei burutik pasa ere egiten ez zitzairen bizimodua eman die. Feminismoak etorkizuna ere esan nahi du. Egizu bat gurekin historiaren alde zuzenean.

GUERRILLA GIRLS

www.guerrillagirls.com

